

Bero-beroan

Unesco, euskara eta beste

UNESCOK hirugarrenez argitaratu du *Arriskuan diren munduko hizkuntzen atlasa*. Arrisku mailaren arabera, lau multzo egin ditu: 538 hizkuntza egoera kritikoa daude, 502 arrisku handian, 632 arriskuan eta 607 egoera ahulean. Azken multzo horretan sartu du Unescok euskara. Bestalde, Atlasaren aurreko edizioetan ez bezala, katalana eta galegoa ez dira arrisku egoeran dauden hizkuntzen artean azaltzen.

Nila Vigil-ek bere webgunean (nilavigil.wordpress.com) Atlasaren erredaktore buru Christopher Moseleyk esandako hitzak azaleratu ditu, ez baita ados haren iritziarekin. Moseleyren ustez, "inuzentea eta sinplista litzateke baieztatzea kolonialak izan diren hizkuntza handiak, hala nola, ingelesa, frantsesa eta espainia-

rra beste hizkuntzak desagertzearen errudun direla, beti eta leku guztietan". Vigilen iritziz, "hizkuntza ez dago arriskuan berezko arrazoiengatik. Arriskuan dago bere orde besterik. Hizkuntza bat hasi delako tokia hartzen. Beraz, aspaldiko hizkuntzak betetzen zuen espazioa hartzerat datorren hizkuntza hori hizkuntza hiltzaile bihurtzen da. Hizkuntza hiltzailea izatea ez da hizkuntzaren ezaugarria, hizkuntza bat besteekin moldatzeko moduak eragindakoa baizik. Ondorioz, 'hizkuntza kolonial handien' egiteko azarritzean ez da analisi inuzente eta sinplista egiten, hain arin Moseleyk esan duen moduan".

Bestalde, peruarraren webgunean somatu dugu pozarren direla *La teta asustada* film peruarrak Berlinale saria irabazi duela, eta are gusturago daude filmeko protagonistak, Magaly Solierrek, saria jasotzerakoan ketxuaz hitz egin eta abestu zuelako.

Kultur Errota diru-laguntzarik gabe

TOPAGUNEAK adierazi duenez Gipuzkoako Foru Aldundiak Topaguneari eta Kultur Errotari "babesa kendu" die. Topaguneko ordezkarien hitzetan, lankidetzaren hitzarmena bertan behera uzteko erabakia ez da krisi ekonomikoari lotutako ondorioa, "Foru Aldundiak bultzatu nahi dituen hizkuntza politika eta kultur ereduari lotutakoa" baizik. Azken urteotan Gipuzkoako Foru Aldundiak 49.000 euroekin babestu ditu Kultur Errota formatu txikiko kultur emanaldien zirkuitua eta Topaguneko bazkideekin egindako sustapen lanak.

Foru Aldundiko Estibaliz Alkorta Euskara zuzendariak esan du euskara elkarteek babesik ez dietela kendu, Topaguneari lana asko baloratzen dutela eta hark aukera duela diru-laguntza publikoetara aurkezteko.

TALAIAN

Herria Abian, eraso antikapitalista

Finantza krisia erasandako sektoreen erantzuna probokatzeko ari da Euskal Herria. Manifestaldiak, itxialdiak, enkarteladak, okupazioak... dira sektoreen eta norbanakoen erantzunetako batzuk. Azken batean, erantzun puntualak dira, Enplegu Erregulazio Espedienteak (EEE) eta langabezia sortzen ari den krisiaren aurrean. Langile eta alderdi konkretuen amorru eta inpotenziaren aurpegia dira. Hori guztia oso ongi dago, eta babestu eta txalotu egin behar da. Dena den, plataforma berri bat agertu da Euskal Herria joan den astean, Herria Abian. Bere helburuak azken erasoren eramatzen baditu eta ez bada ekintza zehatz batzuetara mugatzen, zalantzarik gabe babes sozial handia lortuko du eta gizarte alternatibo baten eraikuntzan lagunduko du.

Herria Abian aldaketa sozialerako plataforma da. Apustu bat da, egungo mundu mailako krisiaren benetako arduradun eta egile den kapitalismoaren alternatiba izango den eredu sozial eta ekonomikoaren alde. Hainbat plataforma kolektiboetako ehun pertsona inguruk sortu dute: langabetuak, gazteak, ikasleak, nekazariak, arrantzaleak, pentsionistak, immigranteak, garraiolari autonomoak, ekologistak, ezintasunak dituzten pertsonak, besteak beste. Beraien helburuak hiru dira: lanaren banaketa (produktiboa eta birproduktiboa) eta aberastasunaren banaketa; ekonomiaren demokratizazioa eta ekosistemaren eredu demokratiko baten aldeko apustua. Hori guztia, beste Euskal Herri bat sortzeko eta beste mundu bat eraikitzeko soberania aldarrikatuz. Azken batean, kapitalismoaren birsorkuntzaren kontrako eraso eta gizarte berri baten aldeko plataforma da. Ongi etorria izan dadila plataforma. Sindikatuek ez dezatela porrotera bideratu!

Juan Mari Arregi

BAHEA

Juan Martin Elexpuru *Berrian* esanak Iruña-Veleiaz: "Kontrako frogak erabakigarriagoak plazaratzen ez diren bitartean, zalantzekin, baina benetakoak direla pentsatzen jarraituko dut; gehienak behintzat. Baliteke batzuk faltsuak izatea, norbaitek aurkitutakoak edo aurkitzaileak izorratzeko berriki ipinitakoak. Edo eta hitzak edo zeinuak gehituta egotea benetako ostraken gainean. Hala balitz, identifikatu egin beharko dira pieza horiek, baina ezin dira horregatik denak txartzat eman".

Benitok *Karrajua.orgen* esanak: "Ustedut badagoela azkenotan aipagarri den gauza bat: [euskara] ikasle blogariak. Une honetan hiru dauzkat nik 'fitxatuta': *El Euskaltegi*, *Euskara.org* eta Erandioko Udala Euskaltegi ikasle batek edo batzuek egiten dutena (...) Pertsona batzuk ahalegintxo bat ari dira egiten, ilusioz. Ez da edonorentzako ahalegina, ez posiblea edo erakargarria guztientzat, argi dago. Baina ahalegin horrekin batera komunikatzeko eta ikasteko bide posible bat ari dira zabalitzen beste batzuentzat. Eta, egia esanda, eredu eta laguntza pobrea ematen diegu eredutzat gaituzten irakasleok. Ala ez?"

Zertan utziko dute hauteskudeek bide soberanista?

IKERKETA SOZIOLOGIKO gehienek azpimarratzen dute azken 30 urteetan ez dagoela aldaketa handirik Euskal Herriko mapa politikoan, batez ere abertzale eta ez abertzaleen artean. Errealitate horren ispi-latzte instituzionala hankaz gora geratuko da igandeko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, eta jakina da bizitzako edozein esparrutan errealitatea desitxuratzen denean, horrek biziki oztokatzen duela konponbide egokien bideratzea. Ez gorde arazoak, azalerratu, hausnartu, eztabaidatu, askatasunez hitz egin, komunikazioa jorratu... horiek dira gatazken ebazpenerako doktrinen oinarritzko arauak guraso eta nerabeen artean, lantegian, eskolan, nazioartean... Gurean ez, PP-PSOEn logikan, legez kanporatzeak terroristen lagunak isolatuko ditu, kontraesanak sortuko dizkie eta azkenean lehertuko dira.

Errealitatea da ETak Lazkaoko PSEko Herriko Etxeari eraso egin diola, eta euskal gizartearen ia inork ez duela irudikatzen D3Mko zerrenden ilegalizazioak zertan laguntzen duen atentatu hori saihesten. ETak ez du ilegalizazioen beharrik izan bere erasoetarako, baina legez kanporatzeak are legitimazio handiagoa ematen dio estrategia armatuarekin bat egiten duen sektore politikoari. Ez dakigu, halaber, sektore politiko horren indarra zein den ezker abertzalearen barruan, baina badakigu handia izan ohi dela, eta legez kanporatzeek indartu egiten dutela.

ENAM-EN baitan izan bide da eztabaidarik estrategia soberanistaren inguruan, eta denak adierazten du



datozen urteetara begira indarrez jorratuko dela apustu hori. Ezaguna da bide hori eta borroka armatuarena ez direla bateragarriak epe ertain eta luzera begira, baina esperientziak diosku, epe motzean apustu horrek, bidea partekatu beharko duela ETaren jardunarekin, seguruenik isilean, nahiz eta hemen isileko bideena ia ezinezkoa den.

Senak dio, legez kanpoko ezker abertzaleari eremu horretan libre jokatzeko uztea ilegalizazio politikak baino eraginkorragoak direla gatazka bortitzaren amaierari begira. Mundu mailako esperientzien metaketa zabalak dio eskubideen zapalkuntzak –eta hori da hementiko legez kanporatzea– nekez ekar dezakeela konponbide justurik. Inposa dezake boterearen behinbehineko garaipenik bai, hori da Iraken, Afganistanen, Palestinan, Mendebaldeko Saharan... edo nazioarteko beste hainbat gatazkek erakusten dutena. Aipatutako

arazo bakoitza bere ezpalekoa da, baina denen oinarria da etorkizuna eskubideen zampaketatik marraztu nahi dela. Zampaketa versus askatasuna. Ideien zampaketatik baino ideien askatasunetik samurrago egingo da konponbiderantz. Denborak esango du.

Azken sei urteetako hauteskunde emaitzek erakutsi dute legez kanpoko ezker abertzaleak eutsi egin diola bere esparru politikoari; ez EHren garaiko emaitzekin, baina erresistentziaren ikuspegia garaipean ikur duenarentzat nahikoa berean gotortzeko. Bide soberanistatik egingo bada, hauteskunde dinamikatik at landu beharko da, baina hauen eraginpean, eta jakinik azkenean hauteskundeetan neurtu beharko dela bere benetako indarra. Edozein eratan, eta hauteskudeek errealitate instituzionala desitxuratuko badute ere, balizko proiektu soberanistaren indarrei buruzko pista garrantzitsuak eskainiko dituzte.